

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bartolome Ertzilla Musika Eskola (Durango)****Biola irakasle lan-poltsa osatzeko deialdia**

Bartolome Ertzilla Kontserbatorio eta Musika Eskolako Presidenteak, 2017ko urriaren 23ko ebazpenaren bidez, ondorengo akordio hauek hartu zituen:

*Lehena:* Biola irakasle lan-poltsa osatzeko deialdia onartzea eta jendaurrean erakustea.

*Bigarrena:* Aipatutako deialdia arautuko duten hurrengo oinarriak onartzea:

**Lehena. — Deialdiaren helburua**

Deialdi honen helburua da biola irakasleen lan-poltsa eratzea, A taldekoa, titulazioari dagokion A-2 azpitaldekoa, eta derrigorrezko 3. H.E.rekin.

3. HE ez duten hautagaiak onartu egingo dira, baina bakarrik hartuko dira kontuan 3. HE egiaztatuta duten hautagaiak ez badute hautaketa prozesua gainditzen edo lanean jarduteko disonibilitatea badute lanerako deia egiten den unean.

**Bigarrena. — Hautagaiak bete beharreko baldintzak**

1. Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, ondoko baldintzak bete behar dira:

a) Espainiar nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko herrialderen batena, edo Europar Batasunak egindako nazioarteko hitzarmenak direla bide, eta Espainiak izenpetu baldin baditu, langileen zirkulazio askea ezarri daitekeen estaturen batekoa izatea.

Parte hartu ahal izango dute, orobat, Europar Batasuneko nazionalitatea dutenen ezkontideek, beti ere, legez bananduta ez badaude. Baita haien eta ezkontideen ondorengoek ere, beti ere, baldintza hauekin: ezkontideak legez bananduta ez egotea eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak izatea edo, zaharragoak izanik, haien kontura bizitzea.

Lan-kontratudun pertsonala izaki, aurreko paragrafoan aipatzen ez diren atzeritarrek ere hartu dezakete parte baldin eta egoitza Estatu Espainiarrean badute. Aukeratuak geratuko balira, kontratua formalizatu baino lehen, kontratuaren xedean den jarduera burutzeko administrazio-baimenaren jabe direla egiaztatu behar dute.

b) 16 urte eginda edukitzea eta derrigorrezko erretirorako adinik ez edukitzea, partikularki, adin espezifikoa eskatzen den prozesuen kaltetan izan gabe.

c) Ondorengo tituluren bat izatea edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea eskariak aurkezteko epea amaitutakoan:

— Goi mailako irakasle titulua, biola (ED 2618/1966).

— Musika Irakaslea: biola (ED 2618/1966).

— Goi mailako musika titulua: biola espezialitatea (ED 617/1995).

— Goi mailako musika: biola pedagogia espezialitatea (ED 617/1995).

— Musika irakaslea edo profesionala: Biola (15/06/1942).

— Musika-interpretazioa graduatua: biola (ED 631/2010) edo ordezkotitulazioaren bat.

d) 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokideren bat izatea.

e) Eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.



- f) Diziplina-espiediente batez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako desgaituntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu beko nazionala izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.
- g) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera.
- h) Aurrekaririk ez izatea izaera sexualeko delituak egin izanagatik. Ezinbesteko baldintza da dagokion egiaztagiria aurkeztea, hau da, izaera sexualeko deliturik egin ez izana egiaztatzen duena. Egiaztagiria lan-kontratua izenpetu baino lehen aurkeztu behar da.

2. Hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte baldintza guztiak, eranskinetan beste zer-bait adierazten denean izan ezik. Baldintza guztiak hautaketa-prozesu osoan bete behar dira, hau da, kontratazioaren momentura arte.

#### **Hirugarrena. — Eskabideak eta onarpena**

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, hautagaiek adierazi beharko dute eskatzen zaizkien oinarrietako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela. Eskabideak behar bezala bete eta Bartolome Ertzillako Musika Eskolako Presidentearen izenean aurkeztuko dituzte Durango Udaleko Erregistro Orokorrean (Barrenkalea, 17). Horretarako epea, 7 egun baliodunekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Eskari-orriak Bartolome Ertzilla musika eskolako web orrian agertzen den eredu ofizialean beharko dira aurkeztu: [www.durangomusika.net](http://www.durangomusika.net), bertako edo HAZen.

Eskaera-orriak herri-administrazioen administrazio prozedura erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu daitezke, hau da, beste Herri-Administrazioen Erregistroetan aurkeztu ahal izango dira. Bartolome Ertzilla Musika Eskolako presidenteari zuzenduak izango dira eta dagokion funtzionarioak data ezarri eta izenpetuko ditu, beti ere eskaera-orriak aurkezteko epearen barruan. Izandako akatsak edozein momentuan konpondu ahalko dira, ofizioz edo interesatuaren eskariz.

Eskabideetan honako agertuko da:

- a) Datu pertsonal osoak.
- b) Oposizio faseko probak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz edo gaztelaniaz.
- c) Ezintasunen bat dutenek eskabidean eman beharko dute horren berri eta, hala behar izanez gero, hautaprobak egiteko zer egokitzapen tekniko behar dituzten adieraziko dute.

Eskabideari hauxe gehituko zaio:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Dagokion lanposturako eskatzen den titulazioaren fotokopia.
- c) Egiaztagiri edo tituluaren kopia, halaxe ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen euskararen erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikulua. Kopia honen bidez lanpostuari dagokion 3. hizkuntza eskakizunaren edo gorengo baten jabe dela egiaztatzen da. Egiaztagiri honen bidez, hautagaia salbuetsita geratzen da euskara azterketa egin behar izatetik.



- d) Azterketa egiteko tasa ordaindu izanaren ziurtagiria: 34,91 euro. %50eko hobaria izango dute familia guraso bakarreko eta familia ugarien titularrek eta oinarrizko errenta jasotzen dutenek. Baldintza hauek betetzen dituzten hautagaiek tasaren %100 ordainduko dute, eta gero %50a itzuli dakiela eskatu behar dute dagokion ziurtagiria aurkeztuta beste eskaera batean. Tasa ordaintzerakoan, ezinbestekoa da honakoa jartzea PV+NAN zk. Adibidez: PV30677643. Kontu zenbakia: ES94 2095 0036 62 3239029221.
- e) Merezimendu guztien zerrenda aurkeztu beharko da, merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak eta guzti. Honetarako fotokopiak aurkeztu beharko dira.

Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta ere, epearen barruan aurkeztuta egon arren, ondoren frogatutako merezimendurik.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Musika Eskolako presidenteak, ebazpena emango du onartutakoan eta bazter utzitakoan behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpena Durangoko Udalaren iragarki taulan eta Musika Eskolaren web orrian argitaratuko da.

Bazter utzitakoan kasuan, baztertzeko arrazoia zehaztu beharko da zerrendan eta 3 egun balioduneko epean, bazter geratzen direnek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, hala denean, egindako hutsak zuzendu edo agiriak erantsi. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, onartutakoan eta bazter utzitakoan zerrenda onartu duen agintariak erreklamazio horiek ebatziko ditu. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

#### **Laugarrena. — Epaimahaia**

Epaimahaiaren honakoak egongo dira: presidentea, idazkaria eta hiru bokal.

Epaimahaiak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak deitu ahalko ditu hautaketa-prozesuko frogaren baterako edo guztietarako. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira; aholkuak eta laguntza teknikoa eskainiko dute beren espezialitate teknikoetan eta hitzarekin baino botorik gabe jardungo dute.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta hala jakinaraziko diote udal-buruari, baldin eta sektore publikoaren erregimen juridikoaren, urriaren 1eko, 40/2015 Legearen 25. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada. Aurreko kasuetako bat gertatzen denean izangaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, beren ordezkioak izango dituzte; ezin izango da kargua eskuordetu eta epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdiak —titularrak zein ordezkioak— baino gehiago ez badaude.

Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Bertaratutakoan botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkioak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, presidentearen ordezkioak bere ordezkioak jardungo du eta, ordezkioak ezingo balu, hierarkia, antzinatasun eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkapena, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkioak beteko du edo, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahaiak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu.

Epaimahaiek izango dituzten titular eta ordezkioen izen-deituren zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, baztertu eta onartuen zerrendekin batera, Musika Eskolako presidenteak halaxe izendatu eta gero.



Komunikazio eta bestelako gora beheretarako, hauxe izango da Epaimahaiaren helbidea: Durangoko Udala, pertsonal saila, Barrenkalea 17, 1. 48200-Durango.

Legeak ezartzen dituen kalte-ordainak izango dira epaimahaian parte hartzeagatik, halaxe ezartzen baitu Eusko Jaurlaritzako otsailaren 2ko zerbitzuen kalte-ordainengatik 16/1993 Dekretuak, abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuak aldatua.

#### **Bosgarrena. — Hautaketa-prozesua hasteko eguna eta hurrengoak**

Oposizio-aldiko lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua onartutako eta bazter utzitako behin betiko zerrenda onartzen duen Ebazpenean zehaztuko dira. Ebazpen hori Udaleko iragarki-taulan eta Musika Eskolaren web orrian argitaratuko da.

Oposizio gainontzeko ariketen iragarkiak Udaleko iragarki-taulan eta Musika Eskolaren web orrian argitaratuko ditu epaimahaiak eta horren jakitun utziko ditu hautagaiak. Iragarkiak, gutxienez, probak egin baino 24 ordu lehenago argitaratuko dira.

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobetatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengoak egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta epaimahaiak halakotzat jotzen dituenetan izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Borondatezko probak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Epaimahaiak ariketen ordena aldatzea erabaki dezake, eta egoki deritzon ariketak egitea ere bai. Era berean, hautagaiei ariketak irakurtzeko eska diezaieke.

Epaimahaiak denbora eta ariketak egiteko baliabideak egokituko dizkiete egokitzapenik behar eta eskabidean hala eskatu duten hautagaiei. Izan ere, horrela, aukera-berdintasunean arituko dira gainerako parte-hartzaileekin, beti ere hori eginda desitxuratzen ez bada probaren edukia eta eskatutako gaitasun-maila jaisten edo kaltetzen ez bada. Hori horrela da Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen zazpigarrenean xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu diezaieke hautagaiei behar den moduan identifikatu daitezen. Honekin lotuta, ariketa guztietara nortasun-agiria eraman behar da, edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri (pasaporte, gidabaimena...).

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagairen bategi deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, hautagaia baztertuta utziko du, entzundaldia egin ondoren, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesurako deialdia egin duenari.

#### **Seigarrena. — Hautaketa-prozesua**

##### *Lehiaketa fasea: Guztira 8 puntu*

Lehiaketa fasea ez da baztergarria izango, eta ez da kontuan hartuko oposaketa faseko azterketak gainditzeko. Lehiaketa fasean hautagaiek zehazturiko eta egiaztaturiko merituak neurtuko dira. Hautagai bakoitzari eranskinean zehazturiko baremoaren araberako puntuak emango zaizkio. Kontuan hartuko diren meritu bakarrak eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu aurretik aurkeztutakoak izango dira.

Eskabideak aurkezteko epe barruan aurkeztutako merituak baino ez dira kontuan hartuko.

Durangoko Udalean egindako zerbitzuak aipatu beharra dago, nahiz eta interesatuek ez dute berauek egiaztatu behar. Administrazioak berak hartuko ditu kontuan ofizioz. Beste herri-administrazioetan egindako zerbitzuak egiaztatu beharra dago administrazio horiek erabiltzen dituzten egiaztagiria aurkeztuz. Edozein modutan, lanean jardundako aldiak desglosatu beharra dago kontuan izanda zein kidego, eskala, azpi-eskala, talde eta mailatan egin izan diren zerbitzuok.

Enpresa pribatuetan egindako zerbitzuak egiaztatze lan-bizitzari buruzko informea aurkeztu behar da eta, halaber, lan-kontratua eta enpresaren egiaztagiria. Azken honetan lanpostua eta eginkizunak zehaztuko dira.



Deialdi honetako meritu-baremoa honako hau da:

— *Laneko esperientzia:*

1. Biola espezialitatean edozein kontserbatoriotan edo izaera ofiziala edo aitortua duen musika eskolako 2. mailan irakasle moduan egindako hil oso bakoitzeko: 0,082 puntu/hileko; gehienez ere, 3 puntu.

Deialdi honetako puntu-batuketak honako formula honen arabera egingo dira: (egun kopurua/365) x 12, dezimalak ez dira kontuan hartuko.

2. Esperientzia musikari moduan. Orkestra edo banda profesionaletako praktika baloratuko da (0,05 puntu/hile osoko). Grabaketak eta kolaborazioak: 0,05 puntu egiaztatuko grabazio bakoitzeko.

Atal honetan, gehienez ere, puntu 1 lortu ahal da.

— *Prestakuntza:*

3. Eskaturiko titulazioaz gain kontserbatorioan lortutako beste titulazio ofizial bat izateagatik: 1,00 puntu goi mailako titulazioagatik eta 0,50 puntu maila ertainekoagatik. Gehienez ere, 2 puntu.

4. Biola deialdiarekin zerikusia duten espezializazio-ikastaroak egin izanagatik, betiere, baremo honen arabera:

— 15 ordu arte: 0,20.

— 16tik 30 ordu arte: 0,30.

— 30 ordutik gora: 0,40.

Atal honetan lortu daitekeen puntuaziorik altuena: 1 puntu.

5. Pedagogia, didaktika edo informatika musikarekin zerikusia duten ikastaroak egin izanagatik, betiere, ikastaroetako parte-hartzea egiaztatzen bada, eta baremo hau kontuan hartuta:

— 15 ordu arte: 0,10.

— 16tik 30 ordu arte: 0,20.

— 30 ordutik gora: 0,25.

Atal honetan lortu daitekeen puntuaziorik altuena: 1 puntu.

Diploma edo asistentzia-ziurtagiri bidez egiaztatzen diren ikastaroak baino ez dira baloratuko. Bertan, zehaztu egingo da ikastaroak zenbat ordutakoak izan diren.

Titulazio akademikoa lortzeko ikasketa-plan baten parte diren ikastaroak ez dira baloratuko.

*Oposaketa fasea: Guztira 30 puntu*

Oposaketa faseak honako frogak izango ditu:

1. Ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzaila): Biola klasea ematea:

Hautagai bakoitzak klase emango dio biola ikasle bati, gutxi gorabehera, ordu erdiz.

Ariketa honetan, gehienez ere, 10 puntu emango dira, eta gainditzeko, gutxienez, 6,50 puntu lortu behar dira.

2. Ariketa (Derrigorrezkoa eta baztertzaila):

Hautagaiak pieza baten aplikazio didaktikoa azaldu behar du. 10 minutu izango ditu pieza aztertzeko eta 4 minutu ondorioak azaltzeko. Hautagaiak epaimahaiak egin diezazkiokeen galderei erantzun behar die.

Ariketa honek, gehienez ere, 4 puntu izango ditu, eta gainditzeko, gutxienez, 2,6 puntu atera behar dira.

3. Ariketa (derrigorrezkoa eta baztertzaila): Biola interpretazioa.

Hautagaiak musika-obra bat interpretatu behar du, musika maila profesionaleko 6. kurtsoan eskatzen den zailtasuneko edo handiagokoa.

Ariketa honek, gehienez ere, 12 puntu izango ditu, eta gainditzeko, gutxienez, 7,8 puntu atera behar dira.



4. Ariketa (Derrigorrezkoa eta baztertzaila).

Froga psikoteknikoak edo/eta elkarrizketa bat egingo da hautagaia lanpostuaren profilaritza doitzeko den neurtzeko.

Ariketa honetan, gehienez ere, 4 puntu lortu ahal dira, eta ariketa gainditzeko, guztiaz, 2,8 puntu lortu behar dira.

**Zazpigarrena. — Gainditu dutenen zerrenda**

Behin betiko sailkapen-ordena egiteko kontuan hartuko dira oposaketa aldian eta lehiaketa aldian lortutako puntuazioak.

Berdinketarik gertatuz gero, sailkapen-ordena egiteko honakoak hartuko dira kontuan:

- Lehenik, lehen ariketan puntu gehien lortu duen hautagaiaren alde.
- Bigarrenik, hirugarren ariketan puntu gehien lortu duen hautagaiaren alde.
- Hirugarrenik, bigarren ariketan puntu gehien lortu duen hautagaiaren alde.
- Hirugarrenik, biola irakasle moduan denborarik gehien egin duenaren alde.
- Azkenik, zozketa bidez.

Azterketa bakoitzari buruzko puntuazioak Udaleko iragarki taulan eta Musika Eskolaren web orrian argitaratuko dira.

Oposizio-aldiko azken ariketa egin ostean eta, egonez gero, lehiaketa-aldia behin amaitu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, dagozkion kalifikazioekin eta lortutako puntuazioaren arabera. Zerrenda horiek osatu ondoren, Musika Eskolaren web orrian eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko dira.

Dena delako hautaketa prozesutik ateratzen diren gaindituen zerrendak baliagarriak izango dira lan-kontratudun pertsonala izendatzeko, betiere, indarrean dagoen araudiak hala aurreikusten baitu, eta Musika Eskolako zerbitzuak eskaintzeko dituen aldi baterako lan-politsetan sartuko dira.

**Bederatzigarrena. — Gorabeherak. Inpugnazioak**

Oinarri hauek aurreikusten ez duten guztirako, eta oposaketaren funtzionamendu zuzena bermatzeko, epaimahaiak ahalmen osoa du sortu daitezkeen zalantzak argitzeko eta dagozkion akordioak hartzeko.

Interesatuek, deialdia, oinarriak, administrazio ekintzak eta Epaimahaiaren jardueraren ondorioz sortu daitekeena inpugnatu ahal du Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko, ezarritako kasu eta formetan.

Durangon, 2017ko urriaren 23an.—Presidente, José M.<sup>a</sup> Andrés Ibañez de Garaio